


# + V>XQCJ C>F=" I>XF° + GXB=X

**Facultad de Educación, Filosofía y Antropología**

**DONOSTIA | SAN SEBASTIAN**



**I. Modulua**

## Hezkuntzaren Testuinguruak

**Moduluaren gida**

## AURKIBIDEA

<b>1.</b>	SARRERA.....	2
<b>2.</b>	ZER DA MODULUA .....	2
<b>3.</b>	I. MODULUKO IKASGAIAK .....	3
<b>4.</b>	I. MODULUKO KRONOGRAMA.....	3
<b>5.</b>	MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN).....	4
	5.1. Zer da DILANa? .....	4
	5.2. Nola landuko da DILANa? .....	4
	5.3. Nola ebaluatuko da DILANa? .....	4
	5.4. I. Moduluko DILANa.....	5
	5.5. DILANerako ikasgai bakoitzeko gidoiak.....	6
	5.5.1. Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aantiztasuna.....	6
	5.5.2. Hezkuntzaren Soziologia .....	7
	5.5.3. Estatistika Hezkuntzan.....	8
	5.5.4. Hezkuntzaren Historia.....	9
	5.5.5. Garapenaren Psikologia.....	10
<b>6.</b>	MODULUKO ZEHARKAKO GAITASUNEN GIDA.....	11
	6.1. Txosten idatziak. Lan monografikoak .....	11
	6.2. Bibliografiarako A.P.A. arauen adibideak .....	13
	6.3. Lankidetzarako ikaskuntza .....	13
	6.4. Lankidetzaren ebaluatze erabiliko diren irizpideak .....	14

## 1. SARRERA

Pedagogia Graduako eta Gizarte Hezkuntza Graduako ikasketen antolamendua moduluko eskemari jarraituz egituratu da. Pedagogia Gradua eta Gizarte Hezkuntza Gradua zazpi moduluko osatuak dira; lauhileko bakoitzean modulu bat egingo da lehenengo hiru ikasturteetan, eta azken modulua, laugarren ikasturtean. Lehenengo ikasturteko bi moduluak (I eta II) eta bigarren ikasturteko lehenengo modulua (III) elkarrekin daude Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzako ikasleak.

## 2. ZER DA MODULUA?

Modulua ikasgaiak antolatzeko modu bat da, koordinazioa errazten duena eta formazioan sakontzeko eszenatokia eskaintzen duena. Moduluko antolaketarekin barne koherentzia eman nahi zaio graduari, eta zentzua eman Pedagogiaren eta Gizarte Hezitzailearen profiei eta euren txertatze profesionalari.

Lehenengo modulua osatzen duten ikasgaiak Pedagogiako eta Gizarte Hezkuntzako oinarri batzuekin harremanetan jartzen dute ikaslea hezkuntza testuinguru zehatzetan. Moduluak hezkuntza testuinguruaren ikuspegi orokorra eskaini nahi du eta, aldi berean, horiek ulertu eta deskribatzeko klabe batzuk eman esparru desberdinetatik abiatuz: gizarte esparrutik, historia eta kulturatik, eta giza garapenaren alderditik, informazioaren bilketa eta analisi prozesuaren laguntzaz eta emaitzen aurkezpena eginez.

## I. Moduluko gaitasunak:

1. Hezkuntza eta gizarte testuinguru desberdinetan esku-hartzeari dagozkion oinarri teorikoak (psikologikoak, soziologikoak eta pedagogikoak) ezagutu eta ulertu.
2. Errealitate konplexua (hezkuntza mailakoa, soziala, kulturala eta generoari dagokiona) interpretatu, tresna eta prozedura desberdinen bitartez (estatistikoak, metodo historikoa, soziologikoa, psikologikoak) eta informatika-tresnak erabiliz.
3. Hezkuntza ezagutza eraikitzeke esanguratsua den informazioa hautatu eta prozesatu (testuinguruaren analisia eta egoera-arazoak).
4. Gizarte eta hezkuntzaren alorreko gaiei buruzko ideiak, argumentuak publikoki azaldu ahoz, pertsona eta talde garapenera bideratutako baliabideen laguntzaz.
5. Gizarte errealitatearen analisiari buruzko txosten idatziak egin, aurrez ezarritako irizpide formalei jarraituz.
6. Ikaskuntza ekintzak eta eginbeharrak burutzeko jarrera baikorra azaldu.
7. Elkarlanerako jarrera arduratsu eta etikoarekin lan egin lantaldean barruan, horrek dakartzan zailtasunak atzeman eta konpontzeko modua eginez.

**Iraunkortasunerako gaitasunak (Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko): Ezagutza kritikoki testuinguruan kokatu arazosozial, ekonomiko eta ingurumenekoekin lotuaz, maila lokal eta globalean; Baliabideen erabilera iraunkorra sustatu eta natura eta gizarte ingurunearen gaineko inpaktu negatiboaren prebentzioa**

Modulu honetako gaitasunak garatuz ondorengo ikaskuntza emaitzak eskuratu nahi dira:

- a) Gure testuinguru historiko eta kulturalean hezkuntzak dituen ezaugarriak **zehaztu** dokumentu idatzi batean, genero ikuspegia argi eta garbi azalduz.
- b) Hezkuntza lanbideak garatzen direneko hezkuntza testuinguru desberdinak **bereizi eta ezaugarritu** euskarri anitzetan.

- c) Hezkuntza testuinguruen osagai historikoak, soziologikoak, psikologikoak eta hizkuntzari zein kulturari dagozkionak **jaso**.
- d) Hezkuntza testuinguru jakin baten aldagai desberdinak **mugatu** idatziz, teknika estatistikoak, historikoak, soziologikoak eta psikologikoak erabiliz.
- e) Txosten egituratu eta argumentatua **idatzi**, ezarritako irizpide akademiko eta formalak erabiliz.
- f) Moduluan jorratu diren gaiei dagozkien ideiak, pentsamenduak **ahoz azaldu** ikastalde orokorraren aurrean.
- g) Moduluko ekintzen eta eginbeharren plangintzan ezarri diren prozesuak **jaso**.
- h) IKT tresnak **erabili** lanak egin eta azaltzeko garaian.

Iraunkortasunerako ikaskuntza emaitzak (Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko):

- i) **1. Maila Jakin:** Iraunkortasuna eta Garapen Iraunkorra kontzeptuak eta horien dimentsioak (ingurumenekoa, soziala, ekonomikoa) ezagutzen ditu; tokiko nahiz mundu osoko gizarte, ekonomia eta ingurumen arazoetan inplikaturako kausa, ondorio eta subjektu nagusiak ezagutzen ditu; Hezkuntza-jarduerak gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzeko oinarrizko ezagutzak ditu.
- ii) **2. Maila Nola Jakin:** Gizarte eta Ingurumen arazoen konplexutasuna eta konponbideak ulertzen eta aztertzen ditu (nekazaritza iraunkorra, berdintasun-politikak, lan duina, energia eraginkortasuna eta nahikotasuna, ekonomia iraunkorra, gobernantza parte-hartzailea...)

## 3. MODULUKO IKASGAIAK

KURTSO A	MODULUA	IKASGAIAK	ECTS
1	M1- Hezkuntzaren Testuinguruak	→ Hezkuntza, Hizkuntza, Kultura eta Aniztasuna	6
		→ Estatistika Hezkuntzan	6
		→ Hezkuntzaren Historia	6
		→ Garapenaren Psikologia	6
		Hezkuntzaren Soziologian	6

## 4. I. MODULUKO KRONOGRAMA

IKASGAIA K	Estatistika	Psikologia	Soziologia	Historia	H.H.K.A.	DILAN
1. astea						
2. astea		Astero: praktiken ematea	Astero: ariketen ematea			
3. astea	Gaia aukeratu. Izenburua eta laburpena					DILAN aurkezpena Taldeak egin
4. astea	Helburuak	DILAN I: Aurkezpena, Subjektuaren aukeraketa		DILAN I		
5. astea	Behin behineko inkesta					
6. astea		DILAN II	Minimoen Froga	DILAN II	Lan monografikoaren lehen zatiaren entrega eta azalpena	
7. astea	BEHIN BETIKO INKESTA					
8. astea	Datu bilketa	DILAN III		DILAN III		
9. astea	Datuen informatizazioa					
10. astea		DILAN IV		DILAN IV		Ikasgaietako ariketen entrega
11. astea						
12. astea	Azterketa eredia	DILAN V		DILAN V		
13. astea	Datuen analisia: analisiak					DILAN zirriborroaren entrega
14. astea	Datuen analisia: grafikoak					DILAN zirriborroaren feedback
15. astea	Lana entregatu	Azterketa eredia		Lan monografikoa		DILAN osoaren azken entrega
Azterketen asteak	Azterketa	Azterketa	Kuadernoaren entrega	Praktika (txostena) Azterketa	Azterketa	DILAN Emaitzen argitaratzea

## 5. MODULUKO DIZIPLINARTEKO LANA (DILAN)

### 5.1. Zer da DILANa?

Modulukako egitura jarduera global eta diziplinarteko batean gauzatzen da, zeinaren bidez frogatu ahal izango dituen ikasleak modulurako diseinaturiko konpetentziak. Horretaz gain, irakasleek zein ikasleek egindako koordinazio lana biltzen duen elementua da, ikasgaiari dagokion ikuspegi zurruna gaindituz.

Talde-lan bat da konpetentziak eta ezagutzak (eskuratutakoak eta eskuratzeke direnak) martxan jartzea ahalbidetzen duena, hezkuntza arazo bati erantzuteko artikulatuz. Zeharkako gaitasunak (elkarlanean aritzeko gai izan, dokumentuak egiten jakin, txostenak idazten, etab.) ikasteko balio du talde-lan honek. Jarduera honi Moduluko Diziplinarteko Lana deituko diogu.

### 5.2. Nola landuko da DILANa?

I. Moduluko Diziplinarteko Lana txosten idatzi bat izango da. Irakasleriak proposatutako hezkuntza ingurune erreal bat proposatuko du: eskola bat, gizarte hezkuntzako erakunde bat edo hezkuntza-errealitate bat. Ikasleriak txosten arrazoitu eta deskriptibo bat burutuko du, lanbidearen esparruen ezaugarriak ulertu dituela demostratuko duena.

- a)** DILANa talde-lana da. Taldeko ikasle kopurua: 5
- b)** DILAN-erako beharrezkoa den lan-karga ikasgai bakoitzeko ordu kopuruaren %15ekoa izango da. Hau da, 7'5 ordu presentzialak eta 15 ordu ez presentzialak moduluko ikasgai bakoitzean.
- c)** DILAN ikasle-talde bakoitzak irakasle/tutore bat izango du, bere lanaren jarraipena egingo duena. Hirugarren astean egingo dira talde-tutore esleipenak. Irakasle/tutorearen lana izango da diziplinartekoa den jarduera honetan ikasle-taldea orientatzea, lanaren jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- d)** DILAN-erako lana eta jarraipena ikasgaietako praktika orduetan egingo da.

### 5.3. Nola ebaluatuko da DILANa?

1. Nota taldearena da, eta ikasgai bakoitzaren %15a izango da. Gainerako %85a ikasgai bakoitzeko ebaluazio-proben bidez eskuratzen da.
2. *Ebaluazio jarraitako ezinbestekoa* da DILANa egitea. Ikasle guztien DILANa egina behar dute ikasgaietan nota eduki ahal izateko. DILANaren nota izan liteke 0,0´5, 1, 1´5 edo EZ AURKEZTUA.
3. Nota hau DILANeko tutoreak gainerako irakasleei pasatzen die, eta ikasgaien eskuratutako notari gehitzen zaio. Ikasgai bakoitzean gehienez 8,5 eskuratu liteke. Ondoren DILANaren nota gehitzen zaio.
4. DILANa gainditu daiteke eta ikasgaia suspenditu. Horrelakoeta, DILANaren nota ezohiko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).
5. Ikasleak eskubidea du ikasgai batean/batzuetan ebaluazio jarraiari uko egiteko, horrela adierazten badio idatziz ikasgaiko irakasleari lauhilabetearen lehen 9 asteetan.

Horrelakoetan, azken ebaluaziorako eskubidea luke, eta irakasleari galdetu beharko dio zernolakoa izango den azken ebaluazioko proba hori.

6. Hiru ikasgai baino gehiagotan ebaluazio jarraiari uko egiten dieten ikasleek aukera izango dute DILAN taldean egiteko.



## 5.4. I.Moduluko DILANa

Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza graduetako memoriak finkatzen duenez, Lehenengo Moduluko DILAN-a txosten idatzi bat izango da, hezkuntza testuinguru bat deskribatuaz, modu horretan ikasleak moduluko gaitasunak landu dituela erakutsi beharko duelarik.

Proiektu honen enuntziatua honakoa litzateke: “Zuen herriko udaletxeak, hurrengo urteetarako bere plan estrategikoaren barnean, hezkuntzaren egoeraren diagnostiko edo erradiografia bat egin nahi du, eta zuei eman dizuete lan hori egiteko enkargua”.

Lanaren izenburua honakoa izango da: “Nolakoa da, eta nola aldatu da hezkuntzaren egoera eta bere testuinguru soziala, zuen auzo, herri, hiri edo eskualdean?”

Horretarako, talde bakoitzak hezkuntza testuinguru bat aukeratu, eta deskribatu-aztertu egin beharko du. Lan horretan laguntzeko irakasle-tutore bat edukiko du talde bakoitzak.

### **Gidoi orokorra honako hau izango da:**

1. Sarrera
2. Geografia, Historia, Demografia, Politika, Ekonomia... (batez ere Hezkuntzaren Soziologia asignaturatik)
3. Kultura-Hizkuntza (Kultura, Hezkuntzaren Soziologia eta Psikologia –Jendea nola bizi den- asignaturak)
4. Hezkuntzaren testu-ingurua: hurbilpen historiko eta soziologikoa.
5. Ondorioak
6. Bibliografia

Estatistika hiru puntuetan landuko da, zeharka. Asignatura bakoitzeko gidoiak hurrengo orrialdeetan ageri dira.

## 5.5. DILANerako ikasgai bakoitzeko gidoiak

### DILANerako HEZKUNTZA, HIZKUNTZA, KULTURA ETA ANIZTASUNA ikasgaien egin beharrekoa

Izenburua, erantzun beharreko galdera, ariketaren aurkezpena edo deskribapena, justifikazio, helburuak

**Izenburua:** Egoera soziokulturala zure gertuko testuinguruan: lagun-taldea, familia, auzoa.

**Erantzun beharreko galdera:** "Nolakoa da zure lagun-talde, familia edo auzoko egoera soziokulturala?"

**Proiektuaren deskribapena:** Aukeratutako testuingurua ikuspegi soziokulturaletik deskribatu beharko da.

**Justifikazioa:** Kultura gizakiarengan jokatzen duen akzio sozialeko programa bat da sozializazio-prozesuan eta helduaren elkarrekintza sozialean zehar. Horregatik, bereganatzen den transmisioa eta patroien ikastea ulertzeko, ezinbestekoa da testuinguru soziokulturala ezagutzea. Hartarako funtsezkoa da zer alderdi analizatu behar diren eta nola informatu jakitea.

#### **Proiektuaren helburuak:**

- 1) Errealitate soziokultural zehatza aztertzenjakitea
- 2) Inguruko errealitatearen ezagutza hobea lortzea.
- 3) Errealitate soziokulturalaren eraikuntzarako inplikazio pertsonala antzematea.

#### **Lanaren planifikazioa**

Testuingurua aukeratu ondoren azertu behar da, eta ondorengo atalak agertu beharko dute derrigorrez txostenean:

- Talde barruan elementu bereizleak eta beste talde batzuekiko elementu bereizleak.
- Elkarreragin, sozializazio eta kontrol sozialetik transmititzen diren kodeak eta errealitate soziokulturalaren arauak ezagutzea.

**Oharrak:** Guztira, 4 orrialde osatu beharko dira. Beharko balitz, 5 ere izan litezke.

DILANerako

## HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

ikasgaiaren egin beharrekoa

Izenburua, erantzun beharreko galdera, ariketaren aurkezpena edo deskribapena, justifikazio, helburuak

**Izenburua:** Gure ingurunearen azterketa soziologikoa

**Proiektuak erantzun beharreko galdera:** "Nolakoa da, eta nola aldatu da, zure auzo, herri edo eskualdea?"

**Proiektuaren aurkezpena edo deskribapena (enuntziatua).**

Zuen herriko edo hiriko udaletxea hurrengo urteetarako plan estrategikoa prestatzen ari da, eta hor barnean hezkuntza arloari buruzko erradiografia edo diagnostiko bat egin nahi du.

Horretarako, eta hezkuntza eta gizartearen arteko harreman eta eraginaren jakitun, diagnostiko horren lehendabiziko zati bat prestatzea eskatu dizuete: herriaren azterketa soziologikoa.

**Justifikazioa:** Hezkuntza ulertzeko, beharrezkoa da kontestu soziala ezagutzea, kontestu horrek eragin handia baitu hezkuntzarengan.

Horregatik, hezkuntza arloko profesional eta aditu izateko prestatzen ari zaretenontzat, beharrezkoa da errealitate soziala zientifikoki eta kritikoki aztertzen jakitea. Hori da proiektu honetan ikasiko duzuen.

**Proiektuaren helburuak:** Proiektuaren helburu nagusia oraintxe aipatu duguna da: hezkuntzaren testuinguru soziala zientifikoki eta kritikoki aztertzen ikastea.

Hortaz gain, honako kompetentzi hauek landuko dira proiektu

honekin:

- Komunikazio gaitasunak lantzeko, egindako lanak idatziz eta ahoz aurkezten ikastea
- Ikasgairako interesgarria den informazioa bilatzen eta ikertzen jakitea
- Taldean lan egitea.
- Ikasketarako interesa eta jarrera positiboa erakustea.

DILANerako  
**ESTADISTIKA HEZKUNTZA**  
ikasgaiaren egin beharrekoa

Izenburua, erantzun beharreko galdera, ariketaren aurkezpena edo deskribapena, justifikazio, helburuak

**Izenburua:** Soziologia, Hezkuntza,... edo beste ikasgai baten aztertu behar den gaia (edo gaiaren atal bat) kontuan hartuz behar diren Analisi estatistikoak egin

**Erantzun beharreko galdera:** Zure auzo, herri edo eskualdean, ezagutu nahi duzun errealitate soziologiko edota hezkuntza inguruko bat nolakoa den deskribatu edota nola aldatu den aztertu, Estatistikaz baliatuz.

**Proiektuaren deskribapena:**

- 1.- Gai bat aukeratu
- 2.- Datu bilketa  
bat egin
- 3.- Datuak informatizatu
- 4.- Datuen analisi estatistikoak egin
- 5.- Emaitzak ondo aurkezteko behar diren grafiko estatistikoak eraiki

**Gai posibleak:** Hezkuntza, ekonomia, politika, ohiturak, generoa, immigrazioa, hizkuntza, kultura... hau da, Moduluko beste ikasgaietan landuko diren gaiak kontutan hartuz, hauetako bat aukeratu, ikasgai honetan lantzeko.

**Justifikazioa:** Estatistika, errealitatea ezagutzeko tresna bat da, eta lan honetan Estatistikak eskaintzen dituen aukera batzuk ezagutu eta erabili beharko dira. Aldi berean,

informatika, analisi estatistikoak egiteko ezinbestekoa bihurtu da. Hau dela analisiak egiteko eta grafikoak eraikitzeke SPSS eta EXCEL programak erabili beharko dira.

**Helburuak:** Soziologia, Historia... edo moduluko beste ikasgai baten aztertu behar den gaia (edo gai baten atal bat) kontutan hartuz, datu bilketa bat egin. Ondoren hauen analisi estatistikoak egin, eta , emaitzak plazaratzeko behar diren grafiko mota ezberdinak eraiki. Adibidez, herri, auzo edo eskualde bateko testuinguru sozio-hezitzailea aztertzea.

### **Lanaren planifikazioa (entregatu beharrekoak, datak...)**

- Proiektuarekin, hirugarren astean hasiko gara.
- 5. astean lanaren aurkibidea, laburpena eta helburuak entregatu beharko dira.
- 7. astean behin-behineko inkesta entregatu beharko da
- 10. astean, analisi estatistikoak egiten hasiko gara.
- 15. astean lana entregatu beharko da.

### **Ebaluazioa**

Lan hau egiteko, ikasle bakoitzak 25 ordu behar dituela kontuan hartuz, lan honi dagokion balorazioak, ikasgaiaren puntuazio orokorraren %15 izango da.

DILANerako

**HEZKUNTZAREN HISTORIA**

ikasgaiaren egin beharrekoa

Izenburua, erantzun beharreko galdera, ariketaren aurkezpena edo deskribapena, justifikazio, helburuak

**Izenburua:** Testuinguru hurbila eta eskolaren bilakaera historikoa

**Proiektuak erantzun beharreko galdera:** ¿Zein izan da testuinguru jakin bateko herritarrek ezagutu duten eskola?

**Justifikazioa:** Hezkuntza-fenomenoak ulertzeko, hezkuntzaren profesionalak ezinbestekoa du, hauen testuinguru historikoa ezagutzea. Eskolaren dimentsio historikoaz jabetzeko asmotan eskola ezagutu eta bizi izan dutenen lekukotasunak analisi eta hausnarketa historikorako oinarri bikaina eskaintzen du.

**Ariketa:**

1. Lana taldeka burutukoda.
2. Taldeek belaunaldi ezberdinen testigantza jasoko dute.
3. Taldeko kide bakoitzak hiru elkarrizketa egin behar izango ditu belaunaldi ezberdinetako lekukoei ezagutu izan duten eskolaren inguruan hain zuzen ere.
4. Iturri mota honetan oinarriturik, taldeek lekukoaren begiradapeko eskolaren bilakaera historikoa zein izan den aztertu eta azalduko dute.

**Helburuak:**

- Eskolaren bilakaera historikoa ezagutzea
- Ahozko Historiara hurbildu belaunaldi ezberdinetako lekukoaren testigantza jasoz eta aztertuz
- Gaitasun hauek garatu: ezagutza, komunikazioa, analisia



**Planifikazioa:**

DILANari bost eskola-saio eskainiko zaizkio

- DILAN I: Lanaren aurkezpena eta elkarrizketetarako galdeketa prestatu
- DILAN II: Lehenengo elkarrizketaren emaitzak
- DILAN III: Bigarren elkarrizketaren emaitzak
- DILAN IV: Hirugarren elkarrizketaren emaitzak
- DILAN V: Lanaren zirriborroa (irakasgaiari dagokiona) eta aurkezpena gelan

Oharrak:

- II, III eta IV saioetan ikasle bakoitzak egindako elkarrizketen transkribaketen kopia jasoko da eta V saioan irakasgaiari dagokion lanaren zirriborroa.
- Behin-betiko lana (DILAN osoa) azkeneko eskola egunean jasoko du irakasleak.

DILANerako  
**GARAPENAREN PSIKOLOGIA**  
 ikasgaiaren egin beharrekoa

Izenburua, erantzun beharreko galdera, ariketaren aurkezpena edo deskribapena, justifikazio, helburuak

**Izenburua:** Norbanakoaren ingurune ekologikoaren azterketa.

**Helburua:** Giza garapenaren ikuspegi ekologikoak proposatzen dituen "ingurune ekologiaren" esanahia ulertzea. Honetarako, ikasleek berari dagozkien garapenaren testuinguruak aztertu beharko dituzte ikuspegi ekologikoaren printzipioen arabera. Aldi berean, ikasleek norberaren garapenean aztertutako inguruneen ezaugarrien ondorioei buruz hausnarketa egingo dute.

**Proiektuan erantzun beharreko galderak:** Gizaki bezala zein nolako ezaugarri ditut?. Nolakoa naiz? Zer nolako faktoreek eragin dute honetan? Zer nolako eraginak jasan ditugu gure bizi-zikloan zehar?

**Proiektuaren aurkezpena:** Gizaki aktiboak garenez, bizitzan zehar amaz gain, aitak, aiton- amonek, irakasleek, lagunak eta ikaskideek guregan eragin dute. Baita gu ere beraiengan eta beste hainbat errealitateetan ere. Eragin guzti hauek, kontuan harturik, nola baldintzatu eta zein nolako eragina izan dezaketen indibiduoaren garapenean hausnartu beharko duzue. Eta aldi berean, zein desberdintasunak sortarazi ditzaketen testuinguru kultural desberdineko pertsonengan.

Horretarako, norbanakoa, hezkuntza eta gizartearen arteko harreman eta eraginen jakitun, diagnostiko horren lehendabiziko zati bat prestatzea eskatu dizuegu: norberaren garapenean

aztertutako inguruneen ondorioei buruzko hausnarketa egitea nahi dugu.

**Justifikazioa:** Hezkuntza ulertzeko, beharrezkoa da gizakiengan eragiten duten testuinguru desberdinak ulertzea (mikrosistema, mesosistema, exosistema eta makrosistema). Hortaz, hezkuntzaren profesionalek, norberaren errealitate pertsonala eta soziala, modu kritiko eta zientifiko batez, ezagutu eta aztertzeko gai izango zarete.

## 6. MODULUKO ZEHARKAKO GAITASUNEN GIDA

### 5.1. Txosten idatziak, lan monografikoak

Lan monografikoa taldean egiteko garaian, kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenak aipatuko ditugu, baita ebaluatzeko erabiliko ditugun irizpideak ere. Alderdi hauek burutu daitezkeen ordenan aurkeztuko ditugu.

*Txostena* bai Pedagogoiari bai Gizarte Hezitzaileari lanerako baliagarria zaion tresna da. Berau egiten eta hobetzen ikasi behar da. Ezagutza arlo zientifiko bateko gai zehatz baten lanketa idatzian datza. Hona hemen pausu batzuk:

#### Gaia

Hasiera batean landu beharreko gaia moduluko irakasleak aurkeztuko du, baina pixkanaka egokia izan daitekeen gai bat aukeratzen ikasi beharko dugu. "**Zer dakit nik**, eta taldekide bakoitzak, **gai jakin horri buruz?** Zein esperientzia pertsonal dut horretan? Zer jakin daiteke gai horretaz (iturrien hasierako begirada)?" . Komenigarria da norberaren koadro biltzaile bat egitea, kontzeptu-mapa bat, gaira inguratzen gaituena eta hobeto ulertzen lagunduko diguna.

#### Talde-bilera

Bakoitzak egin duen lana aurkeztuko du, besteek egindakoa ulertzen saiatuko gara eta hainbat gauza adostuko ditugu: **lan eskema**. Eginbeharrak banatu eta denbora antolatuko dugu. Hasieran egin beharreko lanen artean iturrien erabilera izango dugu: ikasgaietako apunteak, eman zaizkigun bibliografiak, interneteko helbideak, etab. Zenbaitetan guk egin beharko ditugu tresnak datuak jaso ahal izateko. Proiektua egin ahalizateko **interesgarria den informazioa bilatzen** hasiko gara, eta berau gaika antolatutako fitxetan jasotzeari ekingo diogu.

Informazio hauek guztiak taldeak egingo duen bileran azaldu, ulertu eta eztabaidatu behar dira, *behin betiko lan eskema* batera iritsi gaitzen. Elkarrizketa horietatik sortuko dira testuaren argumentua –aurkezpenari zentzua emango dion haria- eta lanaren aurkibidea.

## Testua

Testuak esku bakar batez idatzia izan behar du. Taldekide guztiek ezagutu/adostu behar dute testua. Formatoak ondorengo ezaugarriak eduki behar ditu:

- Marra artekoa: espazio sinplea.
- Izenburuak zenbakidunak.
- Orrialdearen neurria DIN A4.
- Letra mota Times New Roman 12.
- Azalean:
  - Lanaren izenburua: Timez 14 eta letra lodian.
  - Egile bakoitzeko, 2 abizen eta izena (Times 12), ordena alfabetikoz
  - Harremanetarako helbide elektronikoa bat.

Idazkerak ahalik eta modu inbertsonalena izan behar du. Datuak modurik "objektiboenean" azaltzen saiatu behar dugu, alderdikierarako joera eta adjektibo hanpatuen erabilera saihestuz.

Garrantzitsua da hitz zehatzak -nahi dugun hori egoki adierazten uzten digutenak- erabiltzea, baita gramatika eta puntuazio arauak ongi erabiltzea ere.

Baieztapenak egiten ditugunean, are gehiago bistakoak ez direnean, baliagarria da oso hauek autore jakinen *zitekin* babestea, horrela gure diskurtsoa beste egileekin homologatu baitaite.

## Atalak

Orokorrean ezinbestekoak diren atal batzuk izango ditu:

- **Azala:** Izenburua, Ikasgaiak, Egileak, Data.
- **Aurkibidea:** Atalen eta lanaren artikulazioaren eskema adierazgarria.
- **Gaiaren lanketa:** Normalean *Sarrera* batekin hasten da, bertan argumentua eta testuan aurki ditzakegun zatia labur aurkezten direlarik. Garapena zenbakiz adierazia joango da. Gaiaren atal bakoitza landuko dugu, sintesia eginez amaieran eta ondorengo atalarekin artikulatuz.
- **Ondorioak:** Aurreko lanketatik ondoriozta daitezkeen elementuak eta planteaturiko arazo-gaiari erantzuten saiatzendentzenak.
- **Taldeko eztabaida:** Taldeak, egin duen testuarekiko distantzia kritikoa hartzen du, berau zalantzan jarriz edota ikuspegi berriak eskainiz. Honela, eraiki eta asimilatzen da ikaskuntza berria.
- **Gizarte-hezkuntza proposamena:** Gizarte-hezkuntza lana ez da amaitzen errealitatea ulertu edota diagnostikatzearekin. Aldiz, berau hobetzea eskatzen du. Horregatik, eztabaidaren ondoren, arazoarentzako utopiko bideragarri bat eraikitzen saiatuko da taldea.
- **Bibliografia:** Lana ulertu ahal izateko beharrezkoak diren dokumentu guztiak jasoko dira bibliografian (liburuak, artikulak, web orrialdeetako erreferentziak, etab.). Dena den, APA (*American Psychological Association*) arauetara jarraituz zitatuak izango dira (*ikus adibideak ondorengo puntuan*).
- **Eranskinak:** Zenbait lanetan beharrezkoa izango da txostenaren aspektu batzuk zabaldu edota justifikatuko dituzten dokumentuak (pasa diren galdetegiak, kopiak, argazkiak, argitaratu gabeko dokumentuak, etab.) eranskin gisa jartzea.

## 5.2. Bibliografiarako A.P.A. arauen adibideak

### Liburuak

- Aritzeta, A.; Pizarro, M.; Sora, G (2008): *Emozioak eta heziketa*. Erein.

### Liburuen atalak

- Alonso, C. eta Gallego, D. (1994). Estilos de aprendizaje in F. Rivas (ed), *Manual de Asesoramiento y Orientación Vocacional*. (xx-xx or). Editorial Síntesis.

### Aldiezkarietako artikulua

- Urteaga, E. (2008): "Hezkuntzaren soziologia Frantzian". *Tantak*, 39, 35-50.

### Web erreferentziak

- **Liburua:**

*Bryant, P. (2007) Biodiversity and Conservation*. School of Biological Sciences.  
<http://darwin.bio.uci.edu/~sustain/bio65/Titlepage.htm> Begiratua: 2007/10/14.

- **Aldizkari edo egunkari digitaleko artikulua**

Adler, J. (2007, Mayo 17). Ghost of Everest. *Newsweek*.

[http://newsweek.com/nw-](http://newsweek.com/nw-srv/issue/20_99a/printed/int/socu/so0120_1.htm)

[srv/issue/20\\_99a/printed/int/socu/so0120\\_1.htm](http://newsweek.com/nw-srv/issue/20_99a/printed/int/socu/so0120_1.htm) Begiratua: 2009/05/05.

### Aipuak eta erreferentziak testuan

- Aipu testualak: Muguruzak (2009, 86 or.) adierazi zuenez "teknologi berriak...".
- Aipu ez testualak
  - Olanok (2003) adierazten du...
  - Lafuente *et al.*(2006) aurkitu dutenez ...
  - 1994an Ramírez-ek deskribatu zuen metodoa ...
  - ... ideia ez testuala (López, 2007)
  - ... ideia ez testuala (Gutiérrez *et al.*, 2008)
  - Bi egile baino gehiago badira, ";" (punto eta koma) erabiliz banatzen dira:

- ... ideia ez testuala (Sena, 2000 eta Arévalo, 2001)
- Aipu testuingurutua:
  - Haurra hasieran heteronomoa da (Haranburu, 2004).
- Aipuen aipamena:
  - Bruner-ek, 1986, Ruiz-ek (2009) aipatua, proposatu zuen LASS...

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/42398/20220504-APA7.pdf?sequence=11&isAllowed=y>

### 5.3. Lankidetzarako ikaskuntza

Lankidetzarako ikaskuntzak, elkarrekin lan egiteko beharretik abiatuz, talde-lana sustatzea dakar. Lankidetzarako Ikaskuntzako oinarrizko elementuak:

- **Elkardependentzia positiboa:** Pertsonen arrakasta taldearen arrakastarekin lotuta dago. Helburu komunak lortzearen elkarri laguntzeko motibatzen ditu ikasleak.
- **Norbanakoaren eta taldearen ardura:** Taldea da bere helburuak lortzearen arduradun. Kide bakoitzak dagokion zatia egitearen ardura hartzen du. Elkarrekintza. Ikasleak euren artean laguntzea eta babestea espero da. Taldekideek baliabideak partekatzen dituzte eta besteek ikaskuntzan egiten dituzten esfortzuak estimulatzeko.
- **Gizarte trebetasunak eta talde txikikoak:** Talde lanerako konpetentzien garapena. Ikasleak ikasgairako ikasten du (zereginetan dihardu) eta, aldi berean, taldeko kide gisa (talde lana) lan egiteko beharrezkoak diren konpetentziak eskuratzen ditu.
- **Taldearen prozesuaren autoebaluazioa:** Ikasleak bere taldearen produktibitatea ebaluatzen ikasi behar du. Deskribatu behar du kideen ekintzen artean zeintzuk diren egokiak eta zeintzuk ez, eta erabaki behar du zer jarraitu behar duten egiten eta zer den aldatu beharrekoa.



## 5.4. Lankidetzaren ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak

<i>Irizpideak</i>	<i>Adierazleak</i>
Taldearen antolaketa prozesuaren plangintzan (lan banaketa)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeak lana antolatuta.</li> <li>• Zereginak zuzen banatu dituzte.</li> <li>• Lan prozesuak finkatu dituzte.</li> <li>• Talde osoak parte hartu du erabakitze prozesuan.</li> <li>• Konpromiso dokumentua eraiki eta sinatu dute.</li> </ul>
Parte-hartze aktiboa bileretan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kide guztiek parte hartu dute aktiboki lanaren plangintzan hitzartutakoaren arabera.</li> <li>• Ekarpenak egin dituzte eta besteenak entzun dituzte.</li> </ul>
Taldearen kohesioa zereginaren aurrean	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kide guztiek euren burua ikusten dute burutu den prozesuan eta emaitzan.</li> <li>• Talde-lanerako gaitasun nabarmenak dituzte.</li> <li>• Taldearen prozesu-historia ulertzen dute.</li> </ul>
Proiektuaren gauzatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zereginak errespetatu eta aurreikusitako denboran erantzun du talde osoak, proiektuaren fase guztietan.</li> <li>• Zereginak egoeretara edota taldearen prozesura egokitzen jakin izan dute.</li> </ul>
Proiektuaren jarraipena eta lotutako ikaskuntzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldekide bakoitzak besteek egin dutena ezagutzen du eta aurkezteko eta arrazoitzeko gaita.</li> </ul>
Txostenaren gauzatzea eta aurkezpen kolektiboa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldekide guztiek parte hartu dute aktiboki txostena egiteko garaian, fase bakoitzean eta bere aurkezpenean.</li> </ul>